

# Pinguino mutilen bikotea

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


zenburuak okerreko irudia sor lezake eta garbi esan dezagun: hau ez da musika liburu bat, are gutxiago Argentinako kulturaren erakusleio bat. Eta kito. Liburu atsegina da, dibertigarria ere bai, baina hemen amaitu dira bromak.

Egiakzi, adin guztietarako egokia den obra hau jakintza liburu baten eta aldarrikapen sozialaren artean kokatu daiteke, bietarik ere badaukalako, ipuin baten jantziarekin bilduta.

Irudiz ongi horniturik eta tapa gogorretan babesturik dator, zabaldua 56 cm hartzen ditu, formatu etzanekoa baita. Azalean

antzman daitekeenez, irudiekin egiantzekotasuna bilatzen da, kolore eta forma naturalak direlarik nagusi, baina animaliak humanizatze joera antzman daiteke, eta agertzen diren pertsonak karikatuzatzea.

Funtsean New York hiriko zoo



### 'Tango iritsita, hiru dira'

**Egilea:** Justin Richardson & Peter Parnell. **Ilustratzailea:** Henry Cole. **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni. **Argitaletxea:** Pamiela - Kalandraka.

batean izandako gertakari baten berri ematen da, fikzioaren muga inoiz igaro gabe, obraren amaieran dauden azalpen ohar mami-tuetan jakinarazten denez.

Antza, Central Parkeko zooko pinguinoen sailean bi arrez osatutako bikote bat sortu zen, era naturalean. Gainerako bikote heterosexualen portaera bera erakusten omen zuten –habia eraikitze orduan ere bai–, eta haien zaintzaileak aukera hori aprobetxatu omen zuen, ondoko habietako arrautza bat gurazorik gabe geratu zenean. Saiakera arrakastatsua suertatu zen. Bi pinguino arrek guraso ardurasuak zirela erakutsi zuten, prozesuaren amaiera arte. Liburuan esaten denez, bi aita hauek euren kumea bikain hazi eta hezi zuten. Gertakariak zabal-kundea behar zuela iritzi zioten, eta eskuartean dugun obra horren adibide da.

Liburua osatzeko pinguinoen bizimoduaren azalpenak ematen dituzte, gertakariaren testuingurua eraikitze lanekin batera. Honegatik edo, testuak azalpen liburuaren kutsu neutro eta zientifikoa du –balizko irakurleak adinez txikiak direnean pisuak ger-

tatu daitezkeenak–, baina irakurketa errazki bihurtzen da interesgarri gertakariaren ezohikotasunaren hariari tira eginez.

Bestalde, bistan da familia erduez egiten diren hausnarketak janzteko lagungarri suerta daitekeela, batik bat eredu bakarraren aldarrikatzaileei ikusarazteko naturan ere badirela aukera bat baino gehiago.

Ez dut amaitu nahi itzulpenak egin didan zimikoa aipatu gabe. Duen kalitatea zalantzan jarri nahi izan gabe, jatorrizkoarekin erkatutik testua astundu egin dela iruditu zait, itzultzailearen hautuengatik, eta ez hainbeste euskararen mugengatik. Adibide esanguratsu eta polemiko pare bat jarriko ditut mahai gainean, eztabaidarako: ingelesez «boy penguin» dioen lekuan euskaraz «pinguino ar» dio, *pinguino mutil* infantilago baten kaltetan; eta «*They must be in love*», «Elkar maite dute nonbait» itzuli da, *maitemin* hitzak darion gozotasunari heldu beharrean. Halako gehiago ere badaude, ingelesez ez dagoen zurruntasuna erantsiz lehendik ere aisiazko irakurketa- ren mugan dagoen testuaren kalterako, nik uste.